

2025/02/27an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 27/02/2025.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

**EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2025eko otsailaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, , Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bileran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 27 de febrero de 2025, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2025/01/30ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2025eko otsailaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

## **3.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2024ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## **4.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK (2024ko urria-abendua).**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkontasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2024ko urriaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*8/2024 ERAGOZPENA: buzoneoa-AZAROAK 25. Ez dago fakturarik (120,00 €).*

*9/2024 ERAGOZPENA: gabonetarako eta erregeetarako gaiak erostea (109,43 €). Aurrez ordainduta, "emandako zerbitzua" printzipioaren aurka.*

*10/2024 ERAGOZPENA: buzoneoa- 2025eko egutegi fiskala. Ez dago fakturarik (140,00 €).*

*11/2024 ERAGOZPENA: 117,82 eurotik 82,82 ez dira behar bezala justifikatu, faktura ez da Udalaren izenean jaulki.*

**2025/02/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

12/2024 ERAGOZPENA: Thomann Gmbh-ri hainbat gai erostea (1.149,90 €). Aurrez ordainduta, "emandako zerbitzua" printzipioaren aurka.

13/2024 ERAGOZPENA: 25,69 euroko diru aurrerapen bat ez da behar bezala justifikatu, ez dago fakturarik kontzeptu hauengatik: kontsumisioa, bidegi eta TAO.

ERAGOZPENA dirulaguntza ez delako osorik justifikatu: AD LIBITUM MUSIKARI HAIXE BOLADA antolatzeagatik emandako 565 euroatik, 375,25 euro justifikatzeko hirugarren baten izenean dagoen faktura aurkeztu dute.

ERAGOZPENA dirulaguntza ez delako osorik justifikatu: Ekain Eriz Oyon Elorretako jaiak antolatzeko emandako 2.786 eurotik, 516,62 euro hirugarren baten izenean dagoen fakturarekin justifikatu ditu.

ERAGOZPENA dirulaguntza ez delako osorik justifikatu: BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLARI ordaindutako 28.000 eurotik, 239,41 euro ez dira fakturarekin justifikatu.

ERAGOZPENA dirulaguntza ez delako osorik justifikatu: ASTE ZAPATISTA antolatzeko emandako dirulaguntza justifikatzeko TEPEZ ELKARTEAK aurkeztutako 4.431,96 euroko gastutik, 1.203,68 euro ez daude behar bezala justifikatuta.

ERAGOZPENA dirulaguntza ez delako osorik justifikatu: XXVI. Ferixie antolatzeko Arizmendi lkastola KOOPi emandako dirulaguntzari buruz kultura teknikarrik antzemandako irregularitasunarekin bat etorrira.

ERAGOZPENAK AUZO ETXE ELKARTEARI (Apotzaga), BOLIBAR UGAZU ELIZATEKO AUSOKIDEEN ELKARTEARI ETA BASOTXUETA MENDIOLA ELIZATE ELKARTEARI emandako dirulaguntzengatik, 1.000 eurotik gorakoak izateagatik (elizate bakoitzerako ezarritako dirulaguntza muga) gainerako elkarteek dagokien zatiri uko egiteko berariazko erabakirik egon gabe.

ERAGOZPENA dirulaguntza ez delako osorik justifikatu: LETEKO HIDALGA ELKARTEARI emandako 736,68 dirulaguntzatik 55 euro ez dira fakturarekin justifikatu.

ERAGOZPENA LUIS EZEIZA HERRI ESKOLARI emandako dirulaguntzarenegatik. Eusko Jaurlaritzak ordaindutako fakturarekin justifikatzen du dirulaguntza, eta ez ikastetxeak berak ordaindutakoekin.

ERAGOZPENA ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEARI 2023ko denboraldiko 1. seihilekoagatik ordaindu beharreko dirulaguntzarenegatik: ez dute justifikatzen emandako dirulaguntza.

ERAGOZPENA ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEARI 2023/2024 denboraldirako emandako dirulaguntzarenegatik: onuradun izateko debekuan daude ez dutelako behar bezala justifikatu 2023ko lehen seihilekoaren dirulaguntza.

ERAGOZPENA Arizmendi Kirol Elkarteari emandako dirulaguntzarenegatik 2024ko lehenengo 8 hilabetetan jarduerak antolatzeko: aurkeztutako gastuen % 61,78a begiraleei egindako ordainketak dira, bateraezinak boluntarioen figurarekin eta inolako kontratu loturarik gabe erakunde onuradunarekin.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

2025/02/27  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

**5.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN  
ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Udalbatzarrak, 2024ko urriaren 24an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeke espedientea onartu zuen. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 300.465,14 euro urteko, balio erantsiaren zergari dagozkion 63.097,68 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten berenak:

- HEMEN GARBIKETA S.L.U

Eskaintzaren balorazioaren emaitza honako hau izan da:

A.- Balio-judizioaren menpe dauden irizpideei emandako haztapena.

<b>IRIZPIDEA</b>		<b>HEMEN GARBIKETA S.L.U</b>
Lanaren planifikazioa (40 puntura arte)	Giza baliabideak kalkulatzeko zehaztapena  7 puntura arte	5
	Langileen dedikazioa eta lanen antolaketa  Puntu 1era arte	1
	Ohiko lanen programazioa  5 puntura arte	3
	Zerbitzu bakoitzerako proposamen zehatza  20 puntura arte	16
	Izendatutako baliabideak  6 puntura arte	3

	Aldian behingo informazioa Puntu 1era arte	1
Kontrol sistemak (9 puntura arte)	Planifikazioaren kontrola eta kalitate kontrola 3 puntura arte	3
	Zerbitzua bete eta antolatzeko baliabideak 3 puntura arte	3
	Aldian behingo informazioa 3 puntura arte	3
<b>PUNTUAK GUZTIRA</b>	<b>49</b>	<b>38</b>

B.- Proposamen ekonomikoaren eta irizpide automatikoen balorazioa.

<b>IRIZPIDEA</b>	<b>HEMEN GARBIKETAK S.L.U</b>
Derrigorrezko zerbitzuetarako eskaintza: 40 puntura arte (lizitazio prezioa: 232.875,70 € urteko)	218.920,70 € urteko <b>40 puntu</b>
Aukerako zerbitzuetarako eskaintza: 4 puntura arte (lizitazio prezioa: 20.050,80 € urteko)	17.520,70 € urteko <b>4 puntu</b>
Garbiketa bereziko zerbitzuetarako eskaintza: puntu 1era arte	771,20 € urteko <b>1 puntu</b>

2025/02/27  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

(lizitazio prezioa: 963,48 € urteko)	
HOBKUNTZAK: 6 puntura arte	<b>6 puntu</b> Ehunak urtero garbitzea: BAI 30 orduko lan-poltsa BAI
<b>PUNTUAK GUZTIRA</b>	<b>51</b>

Kontratazio Mahaiak 2025eko urtarrilaren 16an egindako proposamena ikusi da.

HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresak aurkeztu duenez errekeritutako dokumentazioa eta 11.860,63 euroko bermea jarri, Udaltzarrak, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat, eta bertaratutako udaltzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ESKORIATZAKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea ondoren adieraziko diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunen menpe.

Prezioa:

DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: 218.920,70 € urteko (BEZik gabe), gehi BEZaren % 21ari dagozkion 45.973,35 €

Zenbateko hori, BEZa gabe, honela banakatzen da eraikinka:

Luis Ezeiza Herri Eskola	41.427,90
Haurreskola (biblioteka barne)	15.906,00
Kulunka Haurtzaindegia (eraikin oktagonala)	16.629,00
Ibarraundi Museoa	10.802,83
Zaldibar	3.928,30
Ludoteka	6.000,90
Kiroldegiko garajeak	771,20
Pilotalekua	12.212,68
EPA	2.422,05
Elkarteen txokoa	1.542,40
Geltoki zaharra	2.385,90
Artxiboaren lokala	289,20
Torrebasoko komun publikoak	1.789,43
Musika eskola	4.892,30
Kultur etxea	7.880,70
Udaletxea	15.231,20

2025/02/27  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

Liburutegia	8.880,85
Kiroldegia	65.927,87

AUKERAKO ZERBITZUAK: (BEZa gabe)

ERAIKINA	URTEKO KOSTUA GUZTIRA
Ibarraundi museoa	4.048,80
Kiroldegia	13.471,90

Udal eraikinetan garbiketa bereziak egiteko aukerako lanak (BEZa gabe)

ERAIKINA	ZERBITZUAREN KOSTUA
Ibarraundi	72,30
Zaldibar	48,20
Pilotalekua	289,20
Udal etxebizitzak (etxebizitzako)	289,20
Kultur etxea	72,30

**Bigarrena.-** Enpresa esleipendunak berak adierazitakoaren arabera, kontrata honetako langileak Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbikuntzaren 2019-2026 Lan Hitzarmenaren (20000785011981 kodea) pean egongo dira.

**Hirugarrena.-** Kontratazio honen esleipena eta formalizazioa kontratatzailearen profileen eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean -EBAOn- argitaratzea.

**Laugarrena.-** Derrigorrezko zerbitzuei dagozkien ondorengo gastuak onartzea 2025eko ekitaldiko aurrekontuen kargura.

ERAIKINA	AURREKONTU APLIKAZIOA	ZENBATEKOA (€)
Luis Ezeiza Herri Eskola	1 0100.227.323.40.01 2025	38.539,08
Haurreskola (biblioteka barne)	1 0100.227.323.30.01 2025	14.796,86
Kulunka Hartzaindegia (eraikin oktagonala)	1 0100.227.323.10.01 2025	15.469,44
Ibarraundi Museoa	1 0100.227.333.20.01 2025	10.049,54
Zaldibar	1 0100.227.333.30.01 2025	3.654,37
Ludoteka	1 0100.227.337.30.01 2025	5.582,45
Kiroldegiko garajeak	1 0100.227.342.20.01 2025	717,42
Pilotalekua	1 0100.227.342.10.01 2025	11.361,08
EPA	1 0100.227.326.20.01 2025	2.253,16
Elkarteen txokoa	1 0100.227.341.60.01 2025	1.434,85
Geltoki zaharra	1 0100.227.153.40.01 2025	2.219,53

**2025/02/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

Artxiboaren lokala	1 0100.227.332.20.01 2025	269,03
Torrebasoko komun publikoak	1 0100.227.171.00.01 2025	1.664,65
Musika eskola	1 0100.227.326.10.01 2025	4.551,15
Kultur etxea	1 0100.227.333.10.01 2025	7.331,17
Udaletxea	1 0100.227.920.00.01 2025	14.169,11
Liburutegia	1 0100.227.332.10.01 2025	8.261,58
Kiroldegia	1 0100.227.342.20.01 2025	61.330,64

## **6.- ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ UDAL KIROLDEGIKO ETA LUIS EZEIZA ESKOLA PUBLIKOKO ERAIKINETAN BEROA SORTZEKO SISTEMA TRUKE GEOTERMIOA EZARRITA BERRIZTATZEKO PROIEKTUA ONARTZEA.**

Udalbatzarrak, 2024ko urriaren 31n hartutako erabakiz, TELUR GEOTERMIA Y AGUA S.L. ENPRESARI esleitu zion EUOPAR BATASUNAK NEXT-GENERATION EU-K FINANTZATUTAKO SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN ESPARRUKO KONTRATU MISTOA HONAKO HAUEK EGITEKO: BATETIK, GEOTRUKESISTEMA BAT EZARRI ETA MANTENTZEKO OBRA PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENTZEKO ETA EGIKARITZEKO (PRESTAZIO NAGUSIA) ETA, BESTETIK, MANUEL MUÑOZ UDAL KIROLDEGIKO ETA LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO ERAIKINETAKO GALDARA-GELAK EGOKITZEKO, MARTXAN JARTZEKO ETA OPTIMIZATZEKO. Kontratuaren prezioa 827.608,63 euro gehi BEZari dagozkion 173.797,81 euro da, eta baldintza administratibo partikularren gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe dago.

TELUR GEOTERMIA Y AGUA SL enpresak, kontratua formalizatu zenean hartutako konpromisoa betez, proiektua entregatu du Udal Erregistroan 2025eko otsailaren 14an.

Egindako proiektua eta administrazio-espeditentean jasota dagoen txosten teknikoa aztertu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 195.2 artikulua aurreikusten duenez, lege horrek urbanizazio-proiektutzat jotzen ez dituen herri-lanen proiektuak edo sistema orokorren edo lokalen zuzkidurak egikaritzeko proiektuak, beren edukiari, izapidetzeari eta onarpenari dagokienez, aplikatu beharreko araudiaren arabera arautuko dira.

Kontuan hartu da ere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. artikuluan xedatutakoa.

Horiek horrela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa kontuan hartuta, eta Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ UDAL KIROLDEGIKO ETA LUIS EZEIZA ESKOLA PUBLIKOKO ERAIKINETAN BEROA SORTZEKO SISTEMA TRUKE-

2025/02/27  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

GEOTERMIKOA EZARRITA BERRIZTATZEKO TELUR GEOTERMIA Y AGUA S.L.  
ENPRESAK EGINDAKO PROIEKTUA ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** Erabakia administrazio-espediterearen ardura duen administrazio-unitateari helaraztea.

### **7.- UDAL LOKALA PREKARIOAN LAGATZEA “BUZTIN ATE ELKARTEARI”.**

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** BUZTIN ATE ELKARTEARI Gaztañadui 29, behea helbideko lokalaren erabilpena lagatzea.

Erabilera-lagapena doakoa eta prekarioa izango da, eta ezin izango da inoiz ere ulertu aldetariko edozeinen aldeko ekonomia- edo errentamendu-eskubidea denik.

Lagapenaren helburua Buztin Ate elkarteari bere jarduerak garatzeko gune bat ematea da. Jarduera horiek onura publikokotzat edo interes sozialekotasat jotzen dira, eta udalerriko bizilagunen onerakotzat.

**Bigarrena.-** Lokala baldintza hauen pean lagatzen da:

- 1) Buztin Ate elkarteak erantzukizun zibileko poliza izan beharko du bere jarduerarengatik sor daitezkeen kalteak estaltzeko. Poliza horrek, gutxienez, 300.000 €-ko estaldura izan beharko du.  
Polizaren kopia bat entregatu beharko du 10 eguneko epean, hitzarmen hau formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita
- 2) Lokala 2025eko abenduaren 15era arte lagatzen da, eta urtero luzatu ahal izango da, guztira 5 urte egin arte. (2029-12-14era arte).
- 3) Buztin Ate elkarteak Gaztañadui kaleko 29an dagoen lokala bakar bakarrik buztingintza jardueretarako erabili ahal izango du.
- 4) Hitzarmen hau sinatzen den hurrengo hilabeteko lehen egunetik baimena ematen zaio BUZTIN ATE buztingintza elkarteari Zubiateko labearen instalazioak doan eta prekarioan erabiltzeko ondoren adierazten diren egun eta orduetan:

ELKARTEKO BAZKIDEEN ERABILPENERAKO	
EGUNA	ORDUTEGIA
Astelehena	9:00etatik 20:30etara
Ostirala	9:00etatik 20:30etara

IKASTAROAK EMATEKO	
EGUNA	ORDUTEGIA
Asteartea	14:00etatik 20:30etara
Asteazkena	9:00etatik 20:30etara

**2025/02/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

Erabilera bakarrik elkarteko bazkideek Zubiateko labearen instalazioetan buztzingintza jarduerak egiteko ematen da. Ikastaroak emateko edota bestelako jarduerak egiteko berariazko beste baimen bat lortu beharko da, eta hala bada, indarrean dauden tasak ordaindu.

Egutegi horretatik kanpo Elkarteak Zubiateko labearen lokala beharko balu ezohiko jardueraren baterako, eskaria Tokiko Garapeneko zerbitzuari egin beharko dio, behar besteko denborarekin beste erabilera batzuekin koordinatu ahal izateko. Buztin Ate buztzingintza elkarteak izango da instalazioaren arduraduna.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arrazoiak behar moduan egiaztatzen baditu, Zubiateko labearen lokala erabili ahal izango du Udalak egutegian Elkartearentzat gordetako egunetan. Erabilera hori aldi baterako Udalarari itzultzea justifikatzen duen arrazoiak horrela ahalbidetzen badu, Udalak hilabete aurretik emango dio erabilera horren berri Elkarteari.

5) ZERAMIKA LABEA ERABILTZEKO BAIMENA

Hitzarmen hau sinatzen den hurrengo hilabeteko lehen egunetik baimena ematen zaio elkarteari ikastaro egunetan Zubiaten dagoen labea doan erabiltzeko.

Erabilera bakarrik elkarteko bazkideek buztzingintza jarduerak egiteko ematen da. Hau da, buztinezko piezak egosteko.

Labea martxan jartzeko lehenengo arduraduna Álvaro Garcia Fernández izango da. Bigarren arduraduna, Lorea Uribe-Etxebarria Gorostiza, eta hirugarrena, Paula Anglada Vink.

Elkarteak izendatutako arduradun horiez gain ezingo du beste inork labea manipulatu.

Egutegi horretatik kanpo elkarteak buztinezko piezak egosteko labea beharko balu ezohiko jardueraren baterako, eskaria Tokiko Garapeneko zerbitzuari egin beharko dio, eta elkarteak labea martxan jartzeko espresuki izendatutako pertsona izango da labearen erabileraren arduraduna. Labea erabiltzeko eskaera 15 egun lehenago egin beharko da.

6) Buztin Ate elkarteak konpromisoa hartzen du urtean zehar Udalarentzat honako ekintza hauek egiteko:

- Apirilean, museora bisita: Debagoiena guztira irekitako bisita gidatua eskainiko du Buztin Ate Elkarteak.
- Ekaina bukaeran, Herri Eskola Eguna: Buztin Ate Elkarteko arduradunek Herri Eskolako arduradunekin batera zehaztuko dute zein ekintza mota egingo duten.
- Ekaineko 1. asteburuan, Ferixa Eguna: Azokan postu bat jarriko du Buztin Ate Elkarteak bazkideek ekoiztutako piezak saltzeko, eta Ferixa Egunean ere, tornua nola erabili erakutsiko dute.
- Gabonetan: Gabonetako bi larunbatetan familia artean gabon apaingarriak egiteko tailerra antolatuko du Elkarteak.

7) Lokala eta bertan dagoen zeramika bilduma eta museo espazioa egoera onean zaintzeko betebeharra du, eta erabilera ez egoki bategatik sortutako konponketak Buztin Ate elkartearen gain izango dira. Lokala jasotako egoera berean itzuli beharko du kontratua amaitutakoan.

8) Eraikinean edo instalazioetan edozein obra edo jarduera egiteko, Udalaren berariazko baimena beharko da. Obrak edo jarduketak ondasun higiezinaren onurarako izango dira, eta ez dute inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

9) Buztin Ate elkarteak ezin izango die hirugarrenei utzi lagapen-hitzarmen honen xede diren ondasun eta instalazioen erabilera.

- 10) Interes publikoko arrazoiengatik Udalak lokala berreskuratu nahi izanez gero, zilegitasuna du lagatako lokala beste bategatik aldatzeko.
- 11) Udalak bere gain hartuko ditu honako kostu hauek: argindarra, ura eta garbiketa.
- 12) Lokala prekarioan jasotzen duen elkarteak bere burua behartzen du egunean izatera bere jarduera egiteko beharrezko diren osasun, lan, hezkuntza, ogasun edo beste edozein arloko erakunde eskudunen lizentzia eta baimenak, eta baita erantzukizun zibileko aseguruia egiteko ere.
- 13) Alde biek berariaz aitortzen diote elkarri Buztin Ate elkartea zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko taldea dela, eta inolaz ere ez dagoela Udalaren menpe, azken horrek ez dituela zuzentzen lokalean egin beharreko ekintzak, eta ez duela bere esku utzi eta ez diola ere inolako onespenerik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokala lagatzen duela, eta beraz, ez duela bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egitegatik edo ez egitegatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.
- 14) Prekarioan lagatze hori iraungitzat joko da Udalak, aurrez eta hilabeteko aurrerapenarekin elkarteari horrela eskatuta, lokala erreklamaturakoan edo elkarteak lokala itzulitakoan. Era berean, kontratu hau automatikoki iraungitzeko arrazoia izango da ondasun hori hemen aipatu ez den beste erabilera baterako erabiltzea.

#### 15) EUSKARAREN ARLOAN

Buztin Ate Elkarteak Eskoriatzan euskararen normalizazioaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du. Horretarako, honako hauek beteko ditu:

##### Ahozko jardunari dagokionez:

- Ikastaro eta tailerrak: 16 urtetik beherako haur eta gazteentzako jarduera guztiak euskara hutsean izango dira.  
Helduentzako jardueretan ere ahal den guztia egingo da euskaraz izan daitezen, edo behintzat, euskararen presentzia bermatzeko. Horretarako, honela jokatu da:
  - o Partaide guztiek euskara ulertzen dutenean, jarduera euskara hutsean emango da.
  - o Partaideen erdiek baino gehiagok ulertzen dutenean, nagusiki euskaraz egingo da. Beharrezkoa balitz, irakasleak laburpenak egingo ditu gaztekeraz edo banakako azalpenak eman horren beharra dutenei.
  - o Partaideen erdiek baino gutxiagok ulertzen dutenean, nagusiki gaztekeraz egingo da, eta irakasleak euskaraz esango ditu agurrak, animo hitzak eta antzekoak. Banakakoan, euskaraz egingo die euskaraz ulertzen dutenei.
- Bisita gidatuak: Euskarazko eta gaztekerazko saio berezituak eskainiko dira, erdi eta erdi, bakoitza bere ordutegiarekin.
- Bestelako jarduerak (Ferixa eguneko salmenta postuak, erakustaldiak...): Neurriak hartuko dira euskaraz edo euskarari lehentasuna emanegiz egiteko. Horretarako, euskaraz dakiten pertsonak jarriko dira jarduera horietan.

Idatzizko komunikazioei dagokienez: Erabilera orokorreko idatziak (izen-emate orriak, kartelak, erakusketetako testuak...) euskaraz edo ele bietan egingo dira. Ele bietan eginez gero, lehentasuna emango zaio euskarazko testuari (kokapena, tamaina...).

Buztin Ate Elkarteak Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango du argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

Zeramika irakasleak: 16 urtetik beherako haur eta gazteekin arituko diren irakasle guztiak bere lana euskaraz egiteko gai izango dira. Helduentzako jarduerari begira ere, irakasle

berriak hartzerakoan EAEko bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten dakitenak aukeratzeko neurriak hartuko dira.

- 16) Erakunde onuradunak genero ikuspegia txertatuko du antolatzen dituen ekintzetan eta bereziki zainduko du komunikazio ez-sexista bideratzeko irizpideak aplikatzea.
- 17) Buztin Ate elkartearen lehendakariak, elkartearen izenean eta ordezkartizan, konpromisoa hartzen du Udal lokalak lagatzeko eta erabiltzeko Udal Erregelamenduko 4. tituluaren aurreikusitako erabilera eta funtzionamendu arauak betetzeko.
- 18) Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bertan aurreikusi gabekoetarako, Udal lokalak lagatzeko eta erabiltzeko Udal erregelamenduan zehazki ezarritakoa eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko dira kontuan.
- 19) Hitzarmen hau interpretatzerakoan zalantzarik balego, zalantzak Udalbatzarrak erabakiko ditu. Udalbatzarrak hartutako erabakiak administrazio bidea agortuko du.

## **8.- ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 2025eko martxoaren**

### **8a.**

Udalbatzarrak, bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotzi kontra bozkatuta eta EHBILDUren 7 zinegotziek alde bozkatuta, ondoren hitzez hitz transkribatzen den mozioa onartzea ERABAKI DU:

*Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.*

*Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukalezina da: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekarizazio norabidea nabarmen hartu du. Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiarena.*

*Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori*

**2025/02/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

*premisia feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.*

*Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek boteretzerara ere eramanez beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista berdintasun politiketan historikoki kokatua izan da, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala eta honi Gobernu Ona esan zaio. Egiteko moduei, egiten denari baina gehiago begiratzean datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehenetsunak definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean lidergo transformatzaile bati buruz ari gara eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea aurrera eramanez nahi dugun prozesu subiranistan.*

*Berdintasun Politikek, azken urteetan, oinarritzako sistema bat sortu dute, baliabide eta planez josia. Ezinbestekoak izan dira, hainbat bide zabaltzeko, eta hauen garapenean oraindik bidea daukagu egiteko. Nabarmenezkoa da, indar ultrakontserbadoreek hauen kontra abiatu duten gurutzada, eta argi dugu horien defentsan eta sustapenean egongo garela instituzio bezala. Baina handik haragoko politikak behar ditugula esan nahi dugu gaurkoan, zeharlerrotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, estruktura estankoa apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Honi, Politika Feminista deritzogu, "emakumeen gaiak" eskintatik atera eta unibertsal bilakatzea jo nahi dugu. Zaintzaz, ekonomiaz, hirigintzaz eta Indarkeria Matxistaz, guztiaz, ikuspegi feministatik aritu nahi dugu. Beharrian nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatuta abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.*

*Horregatik guztiagatik, Eskoriatza-ko Udalak honako hau erabaki du:*

- *Berdintasun zein Barne Planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea. Horretarako, Eskoriatzako I. Berdintasun Plana diseinatzea eta ezartzea.*
- *Euskal Herriko Mugimendu Feministak herrian/herrialdean bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta Martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.*
- *Eskoriatzako Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko egindako eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea.*
- *2024an zehar garatu den berdintasun diagnostikoaren prozesuan parte hartu duen herriko norbanako eta eragile guztiei eskerrak ematea Eskoriatzako argazkia osatzen laguntzeagatik.*

#### **BOZKETA AURRETIK ESANDAKOAK:**

- Irati Iglasiasek bertaraturako guztiak animatu ditu talde feministak egun horren inguruan antolatu dituen dinamikekin bat egitera eta 18:30ean egingo den manifestazioan parte hartzera.

**2025/02/27**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

- Josu Ezkurdiak esan du bere taldeak aurka bozkatuko duela, urtero bezala EUDELek proposatutako eta talde guztiek sinatutako mozio bat dagoelako eta beste urte batez, bere harridurarako, BILDUK ez duelako proposatu. Gaineratu du, bere taldearentzat, berdintasunaren arloan ezin dela politika alderdikoirik egin eta bakoitzak nahi duena aurkeztu, bidea denok batera pausoak emanda egin behar dela.

## **9.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:06ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 30/01/2025.

## **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 15 de febrero de 2025.

## **3.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)**

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el cuarto trimestre de 2024.

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## **4.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARIA-INTERVENCIÓN (octubre-diciembre 2024)**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de octubre al 31 de diciembre de 2024, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/2004 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

*REPARO Nº 8/2024: Buzoneo- 25 NOVIEMBRE. No hay factura (120,00 €)*

*REPARO Nº 9/2024: compra artículos de Navidad y Reyes (109,43 €) Pago adelantado en contra del principio "servicio hecho"*

*REPARO Nº 10/2024: Buzoneo- Calendario fiscal 2025. No hay factura (140,00 €)*

*REPARO Nº 11/2024: De 117,82 euros 82,82 euros no han sido debidamente justificados, la factura no ha sido emitida a nombre del Ayuntamiento*

